



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2015eko otsailaren 4a

15. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Iruñeko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2013ko ekitaldiko, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Iruñeko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2013ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko abenduaren 1ean eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak emandako Iruñeko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2013ko ekitaldikoa, ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2014ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Iruñeko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2013ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (3. or.).
 - II. Datu orokorrak (4. or.).
 - III. Helburua (7. or.).
 - IV. Norainokoa (7. or.).
 - V. Iritzia (8. or.).
 - V.1. Udalaren kontua (8. or.).
 - V.2. Legezketasuna (8. or.).
 - V.3. Egoera ekonomiko-finantzario bateratua (8. or.).
 - V.4. Aurreko ekitaldietako gomendioen betetzea (10. or.).
 - VI. Finantza egoera bateratuak (11. or.).
 - VII. Ondorioak eta gomendioak (14. or.).
 - VII.1. Aurrekontua eta Kontu Orokorra (14. or.).
 - VII.2. Udaleko langile-gastuak (14. or.).
 - VII.3. Udalaren ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea (18. or.).
 - VII.4. Udalaren inbertsioak (20. or.).
 - VII.5. Udalaren transferentziengatiko gastuak (21. or.).
 - VII.6. Tributuak, prezio publikoak eta Udalaren bestelako diru-sarrerak (23. or.).
 - VII.7. Ondare bidezko diru-sarrerak (26. or.).
 - VII.8. Udalaren inbertsio errealen besterentzeza (27. or.).
 - VII.9. Hartutako fidantzak eta gordailuak (28. or.).
 - VII.10. Aplikatzeko dauden kontusailak (28. or.).
- Eranskina. Iruñeko Udalaren urteko kontu bateratuen oroitidazkia, 2013ko abenduaren 31ri dagokiona.
- (Oharra: Aipatutako eranskina foru parlamentarien esku dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan eta honako web helbidean: www.cfnavarra.es/camara.comptos).

I. SARRERA

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Kontuen Ganberak Iruñeko Udalak 2013ko ekitaldian izandako jarduera finantzarioari buruzko arauzkotasunaren fiskalizazioa egin du.

Azterlan hori Kontuen Ganberak 2014. urterako onartu zuen fiskalizazioko urteko programan sartu zen, eta auditoriako bost teknikarik eta auditore batek osatutako taldeak egin zuen, Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboekin lankidetzan. Landa-lana 2014ko maiatzetik irailera egin zen.

Txostenak zazpi atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean Udalaren administrazio- eta antolamendu-egitura deskribatzen dugu, bai eta 2013an aplikatzekoa den araudia ere. Hirugarren eta laugarren ataletan, egindako lanaren helburua eta norainokoa erakusten ditugu, hurrenez hurren; eta bosgarrenean, berriz, Udalaren Kontuari buruzko iritzia, legezkotasunaren betetzea, egoera ekonomiko bateratuta eta aurreko ekitaldian emandako gomendioen betetzea azaltzen ditugu. Seigarren atalean, egoera-orri bateratuak gehitu ditugu. Azkenik, zazpigarrenean, fiskalizazioaren ondorio aipagarrienak azaldu eta udal kudeaketa hobetzeko egokitzat jotzen ditugun gomendioak ematen ditugu.

Fiskalizazio-txostenarekin batera 2013ko ekitaldiko urteko kontu bateratuen oroitidazkia, Udalak egindakoa, erantsi dugu.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Udaleko, haren erakunde autonomoetako, enpresa publikoetako eta fundazioko langileei, lan hau egiteko emandako laguntzarengatik.

II. DATU OROKORRAK

Iruña udalerrri bat da, 2013ko urtarrilaren 1ean zuzenbideko 196.955 biztanle zituena eta 25,098 Km²ko azalera duena.

Udal antolamendua, besteak beste, beharrezkoak diren honako organoek osatzen dute: Osoko Bilkura, zeina ordezkari politikoaren organo gorena baita, Tokiko Gobernu Batzarra eta Alkatetza.

Udalaren administrazio-egitura, Alkatetzaren 2011ko ekainaren 27ko Dekreturen bidez onetsia, honakoa da: Alkatetzaren Kabinetea; Aholkularitza Juridikoaren Zuzendaritza; Gerentzia eta zortzi gobernu alor.

Alkatetzaren Kabinetea, Aholkularitza Juridikoaren Zuzendaritza eta Gerentzia zuzenean alkatearen menpekoak dira, eta gobernuko zortzi alorrak zinegotzi delegatuen menpekoak dira. Zortzi alorrak, zeinetatik hiru bi unitate organikotan xehatzen baitira, 11 zuzendarik, bi zuzendariordek eta 11 idazkari teknikok zuzentzen dituzte.

Udalak, zerbitzu publikoak kudeatzeko, ondoko enteak sortu ditu:


- Erakunde autonomoak
 - a) Udalaren haur eskolak: haur eskolen zerbitzuaren kudeaketa.
 - b) Hirigintzaren Udal Gerentzia: Iruñeko udalerrriaren hirigintzaren kudeaketa.
- Merkataritza-sozietateak: Udalak partaidetzaren gehiengoa dauka honako merkataritza-sozietate haue-
tan:

Enpresa	Partaidetzaren ehunekoa	Xede soziala
Comiruña, S.A.	100	Txikizkako merkatuak
Pamplona Centro Histórico S.A.	100	Hirigune historikoaren hirigintza
Asimec, S.A.	100	Etkez etxeko laguntza
Animsa	77,69	Udal informatika.
Mercairuña, S.A.	51	Handizkako merkatuak

- Gayarre Antzokiaren Fundazioa, Gayarre antzokia kudeatzeko eta administratzeko.

Gainera, Erruki Etxearen Fundazioa, hirugarren adinekoei laguntza ematen diharduena, Iruñeko Udalari lotuta dago orain dela 300 urte baino gehiago, baina, gure aburuz, fundazio pribatu bat da.

Iruñeko Udalaren eta haren menpeko enteen egitura –ente horien artean Erruki Etxearen Fundazioa sartu dugu– honako organigraman jasotakoa da:



(1) Administrazio orokorrean, Gerentzia, Aholkularitza Juridikoaren Zuzendaritza eta Alkatetzaren Kabinetea daude, zeinak alkatearen menpe baitaude.

Udalaren eta haren menpeko enteen datu ekonomiko eta langileei buruzko datu nagusiak honakoak dira 2013ko ekitaldiaren itxieran:

- Administrazioaren sektore publikoa.

	Aitortutako eskubideak	Aitortutako betebeharrak	Langileak, 12-31n
Udala	187.988.313	187.144.943	1.225
Hirigintza Gerentzia	13.475.458	18.905.845	30
Haur-eskolak	8.126.294	7.765.860	149

2013an, Udalak 5.696.900 euroko ekarpena egin zien haur-eskolei, eta 6.308.293 euroko ekarpena, berri, Hirigintza Gerentziari.

- Merkataritza-sozietateak.

Enpresak	Diru-sarrerak	Gastuak	Ekitaldiko emaitzak	Enplegatu kopuruaren batez bestekoa
Comiruña, S.A.	574.206	488.988	85.218	6,34
Mercairuña, S.A.	1.357.558	1.126.638	230.920	14
ANIMSA	6.809.684	6.916.564	-106.880	111
Pamplona Centro Histórico, S.A.	4.288.539	4.079.897	208.642	3,8
Asimec, S.A.	1.745.997	1.889.054	-143.057	66,73

- Fundazioa.

Fundazioa	Diru-sarrerak	Gastuak	Ekitaldiko emaitzak	Enplegatu kopuruaren batez bestekoa
Gayarre Antzokia	2.100.038	2.241.090	-141.052	15

Horretaz gainera, Erruki Etxeak honako datu ekonomikoak dauzka:

	Diru-sarrerak	Gastuak	Ekitaldiko emaitzak	Enplegatu kopuruaren batez bestekoa
Erruki Etxea	17.897.758	16.660.275	1.237.483	201,19

Udala Iruñerriko Mankomunitateko kidea da, eta haren bidez kudeatzen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak (ur-hornidura eta behe presioko saneamendua), hiri-hondakin solidoen tratamenduko zerbitzuak eta hiri-garraioko zerbitzuak (autobusa eta taxia).

Iruñeko Udalarari 2013ko ekitaldian aplikatzekoa zaion araubide juridikoak funtsean osagai hauek ditu: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea, bai eta sektorekako araudi indarduna ere.

2013ko ekitaldirako ez zen aurrekonturik onetsi; izan ere, 2011ko ekitaldiko aurrekontu orokorra eta haren betetze-oinarriak luzatu ziren. Udalaren Osoko Bilkurak 2014ko urriaren 2an onetsi zuen 2013ko ekitaldiko kontu orokorra.

III. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Iruñeko Udalaren 2013ko ekitaldiko arauzkotasunari buruzko fiskalizazioa egin genuen.

Lana honen xedea gai hauei buruz gure iritzia ematea da:

- Ea 2013ko ekitaldiko Kontu Orokorrak bere alderdi nagusi guztietan behar bezain irudi doia erakusten zuen, 2013ko abenduaren 31n, ondareari, finantza-egoerari, aurrekontuaren likidazioari eta ekonomia-emaitzari buruz, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz.
- Ea Udalak legeak bete dituen 2013ko ekitaldian izandako jarduera finantzarioan.
- Udalaren eta haren menpeko enteen finantza-egoera bateratua 2013ko abenduaren 31n.
- Ea 2012ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio-txostenean emandako gomendioak bete diren.

IV. NORAINOKOA

Fiskalizazioaren norainokoa 2013ko Kontua da. Haren prestaketa eta edukia Udalaren erantzukizuna da eta, 272/1998 Foru Dekretuaren arabera, honako kontabilitateko egoera-orriek osatzen dute:

- Aurrekontuaren likidazioaren espedientea.
- Egoera-balantzea eta galeren eta irabazien kontua.
- Eranskinak: diruzaintzako egoera-orria, etorkizunerako hitzartuta dauden gastuen eta diru-sarreraren egoera-orria, balioen egoeraren egoera-orria eta mugimendua, eta tasa eta prezio publikoekin finantzatutako zerbitzuen kostuei buruzko oroitidazkia.

Fiskalizazio-lana honetan zetzan: Udalaren barne kontrola, aurrekontuko gastu eta diru-sarreraren lagin bat eta ondare-kontuak aztertzea, hautapen-proba batzuen bitartez eta lanaren xedek betetzeko beharrezkotzat jotzen diren bestelako auditoria-teknika batzuk erabiliz.

Halaber, kanpoko profesionalak enpresa publikoetan eta Gayarre Antzokia udal fundazioan egindako auditoriak aztertu ziren.

Bestalde, finantzen egoera-orri bateratua –hau da, Udalarena, erakunde autonomoena eta hark partaidea osoa duen sozietateena– aztertu zen; eta, bestalde, aztertu zen Udalak, erakunde autonomoek, merkatukotzat jotzen ez diren udal sozietateek eta Gayarre Antzokiaren Fundazioak finantza-egonkortasunaren eta -iraunkortasunaren helburuak bete dituzten.

Lana egin zen Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan garatutako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauari jarraituz.

V. IRITZIA

Honakoa da arauzkotasunari buruz egindako fiskalizazioaren inguruko iritzia, lanaren norainokoa kontuan hartuta:

V.1. UDALAREN KONTUA

Udalak udal montepioari atxikitako funtzionarioen pentsioei buruzko azterlan aktuarial bat egin zuen 2009an. Azterlan horren arabera, pasiboen sistematik eratorritako betebeharrekin, batez beste, urteko 21,6 milioi eginen dute 2013tik 2019ra doan aldirako. Balantzean ez zen erregistratu etorkizuneko betebeharrerik horietarako probisorik.

Aipatutako salbuespen hori kenduta, Udalaren 2013ko ekitaldiko Kontu Orokorrak bere alderdi nagusi guztietan behar bezain irudi doia erakusten du 2013ko abenduaren 31ko ondareari, finantza-egoerari, 2013ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioari eta data horretako ekonomia-emaizari buruz, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz.

V.2. LEGEZKOTASUNA

Oro har, 2013ko ekitaldian zehar, Udalaren jardura finantzarioa legezketasun-printzipioari jarraituz egin da.

V.3. EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIO BATERATUA

Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2013rako hasierako aurrekontu bateratuak, 2011ko aurrekontuaren luzapena denak, 181,53 milioi euroko diru-sarrerak eta gastuak biltzen zituen hasierako aurreikuspenetan. Gastuen aurrekontuetako aldaketek 32,33 milioi euro egin zuten; hasierako kredituen ehuneko 17,8, hain zuzen.

2013ko eskubide bateratuek 197,06 milioi euro egin zuten; gastu bateratuek, berriz, 201,28 milioi euro.

Ondoren, 2013ko ekitaldiko aurrekontu-betetze bateratuari buruzko adierazle batzuk ematen ditugu, bai eta haien eta Udalaren, erakunde autonomoen eta Udalak partaidetza osoa duen enpresen aurreko ekitaldiko arteko alderaketa ere.

	2012	2013	Aldearen %, 2013/12
Diru-sarrera arruntak	182.355.142	182.009.738	-0,19
Funtzionamendu-gastuak	157.269.222	162.504.170	3
Aurrezki gordina	25.085.920	19.505.568	-22
Finantza-zama	8.598.458	9.218.137	7
Aurrezki garbia	16.487.462	10.287.431	-38
Kapitaleko diru-sarrerak	25.192.908	13.803.519	-45
Kapitaleko gastuak	36.462.611	28.382.816	-22
Aurrekontu-emaizta doitua	6.703.632	13.200.483	97
Zorpetze-maila	4,72%	5,06%	
Zorpetzearen muga	13,76%	10,72%	
Zorpetze-ahalmena	9,04%	5,65%	
Zorra, guztira	115.976.715	109.138.602	-6
Biztanle bakoitzeko zorra	587	554	-6
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	5.479.274	6.867.337	25

2013an, Udalak eta bere erakunde autonomoek aitortutako eskubide guztien ehuneko 92 diru-sarrera arruntak dira; ehuneko zazpi kapitaleko diru-sarrerak dira, eta gainerako ehuneko bata finantza-aktiboen bidezko diru-sarrerei dagokie.

Gastuen osaerari dagokionez, ehuneko 81 funtzionamendu-gastuak dira; ehuneko 14 kapitaleko gastuak dira (kapitaleko inbertsio eta transferentziak), ehuneko lau finantza-zamari dagozkio eta gainerako ehuneko bata finantza-aktiboen gastuena da.

Udalak eta haren erakunde autonomoek, funtzionamendu-gastuak eta finantza-zama diru-sarrera arrunten bidez finantzatu ondoren, 10,29 milioi euroko aurrezki garbia lortu zuten; 2012an baino ehuneko 38 gutxiago.

Ikusten da inbertsio-erritmoa jaitsi dela: 2011n kapitaleko gastuen 52,36 milioi euro izatetik 2012an 36,46 milioi izatera eta 2013an 28,38 milioi izatera pasa da.

2013an, zorpetze ahalmen bateratua diru-sarrera arrunten ehuneko 5,65ekoa izan da eta guztizko zorra 109,14 milioi eurora iritsi da.

Nabarmentzekoa da zorrak ehuneko sei egin duela behera -6,74 milioi euro- 2012tik 2013ra.

Arriskuen kalifikaziorako agentzia batek BBB kalifikazioa eman Udalaren eta haren erakunde autonomoen epe luzeko zorrerako; horrek adierazten du gaitasun egokia duela interesak ordaintzeko eta printzipala itzultzeko. Hala eta guztiz ere, gaitasun hori ahuldu egin daiteke baldintza ekonomikoengatik edo inguruabarren aldaketa aurkakoengatik. 2013ko azaroan, agentziak erabaki zuen Iruñeko Udalaren kalifikazioak baieztatzea eta perspektibak aldatzea, negatiboak izatetik egonkorak izatera.

Bestetik, 2013ko ekitaldiaren amaieran sortutako diruzaintza-gerakina 6.867.337 eurokoa izan zen; horrek adierazten du likidezia gaindikin bat badagoela, zeina erabil baitaiteke hurrengo ekitaldiko gastuak finantzatzeko.

- Aurrekontu-egonkortasuna.

Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa aplikatzearen eraginetarako, SEC'95 Kontabilitate Nazionaleko irizpideak jarraituta, honako enteak jotzen dira tokiko administrazio publikotzat: Udala bera, erakunde autonomoa (Hirigintzako Gerentzia eta haur eskolak), merkatukoak ez diren udal sozietateak¹ (Pamplona Centro Histórico, S.A., Asimec, S.A. y Animsa, S.A.) eta Teatro Gayarre Fundazioa.

Administrazio publikotzat jotako entitateen multzoak 2013ko ekitaldian aurrekontu egonkortasuneko eta finantza iraunkortasuneko helburuak bete ditu; hau da, 153.945 euroko finantza-gaitasuna sortu dute, gastuaren araua bete dute, zeren eta 2013rako aurreikusitako 16.968.249 euroko mugaren aldean gastu-tarte bat lortu baitute, eta haien zorpetzea diru-sarrera arrunten ehuneko 59 da, ezarrita dagoen ehuneko 110eko mugaren azpitik.

¹ Jotzen da ente bat merkatukoa dela haren produkzioa ekonomikoki aipagarriak diren preziotan saltzen bada eta salmentek gutxienez ere produkzio-kostuen ehuneko 50 estaltzen badute.

Ondoren, finantza-gaitasunari eta gastu-tarteari buruzko kalkulua erakusten dugu.

Finantzatzeko ahalmena

	Zenbatekoa, 2013an
Finantzaz besteko diru-sarrerak	210.557.159
Finantzaz besteko gastuak	208.352.851
Saldo ez-finantzarioa	2.204.308
Doikuntzak:	
Itxitako ekitaldietako eta aurtengo ekitaldiko 1., 2. eta 3. kapituluetakoko diru-sarreraren kobrantzak	-2.258.517
Europar Batasunaren diru-laguntzak	208.154
Finantzatzeko ahalmena	153.945

Gastuaren araua

2012ko gastu konputagarri bateratua	177.786.267
% 1,7ko igoera	3.022.367
Diru-sarreraren igoeraren aurreikuspena	6.338.476
Aurreikusitako gastuaren muga, 2013rako	187.147.110
2013ko gastu konputagarri bateratua	170.178.861
Gasturako tartea, 2013an	16.968.249

V.4. AURREKO EKITALDIETAKO GOMENDIOEN BETETZEA

Egiatzatu dugu aurreko fiskalizazioetan egindako hurrengo gomendioak bete egiten direla:

- Aurreko ekitaldietako "Ogasun Publikoa, PFEZaren hartzekodun" eta "Funtzionarioen osasun arreta" kontuetako saldoak erregularizatu dira: 140.977 euro eta 56.575 euro dira, hurrenez hurren.
- Gomendioen betetzeari buruzko jarraibideak eman dira, aparteko orduen justifikazioari dagokionez.

Halaber, nabarmendu nahi dugu Udalean honako jarduketak ezarri direla:

- Formatu elektronikoko fakturen kudeaketa osoa eta fakturen izapidetzeari buruzko adierazleak, bai eta hornitzaileak ordaintzeko batez besteko epeak ere.
- Udal kontratazio publikoa: baldintza administratiboen orrietarako ereduaren ezarpena eta kontratuaren ezaugarriari buruzko taulen informatizatzea, espedienteen kudeatzailea eta sinadura elektronikoa, besteak beste.

Lehentasunezkoztat jotzen dugu 2012ko ekitaldiko eta aurreko ekitaldietako fiskalizazio-txostenean emandako gomendio hauek betetzea:

- *Balorazio-ponentzia berraztertzen jarraitzea, besteak beste, azken hirigintza-garapenak egin diren aldeetako lur-eremuen landa-lur gisako kalifikazioa aldatzeko, bai eta planeamenduan egindako beste aldaketa batzuk jasotzeko ere.*
- *Barne kontrola areagotzea, kudeaketa ekonomikoa hobetzeko beharrezkoa eta ezinbestekoa den tresna baten gisara, eta hura ezartzea Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legean ezarritako hedadurarekin, erabateko fiskalizazioa eginez aurrez fiskalizatu diren eta barne-kontrola pasa duten gastuen lagin bati buruz, Udalaren diru-sarrerari dagokienez, besteak beste.*
- *Diru-laguntzen plan estrategikoan ezarritako helburuekin lotutako adierazleak definitzea eta diru-laguntzen jarraipena eta ebaluazioa egitea.*

VI. FINANTZA EGOERA BATERATUAK

2013ko ekitaldiko aurrekontu bateratuaren likidazioaren egoera-orrria
(Udala eta erakunde autonomoak)

Gastu-aurrekontuaren betetzea. Saillkapen ekonomikoa

Kontzeptua	Kapitulua	Hasierako kreditua	Aldaketak	Behin betiko kreditua	Aitortutako betebeharrak	Ordainketak	Ordaintzeko dagoena	Betetakoa (%)	Aitortutako guztiaren gaineko ehunekoa
Langile-gastuak	1	80.875.700	458.000	81.333.700	81.072.087	80.334.430	737.657	99,7	40,3
Zerbitzuak eta ondasun arruntak erostea	2	70.678.125	-2.112.510	68.565.615	66.208.866	55.847.964	10.360.902	96,6	32,9
Finantza-gastuak	3	4.625.000	-1.334.910	3.290.090	2.450.460	2.450.313	147	74,5	1,2
Transferentzia arruntak	4	13.387.277	2.270.994	15.658.271	15.223.217	13.415.088	1.808.129	97,2	7,6
Inbertsio errealak	6	1.941.517	28.847.607	30.789.124	23.348.001	17.872.359	5.475.642	75,8	11,6
Kapital-transferentziak	7	850.000	4.197.000	5.047.000	5.034.815	2.722.953	2.311.862	99,8	2,5
Finantza-aktiboak	8	2.387.200	0	2.387.200	1.176.607	1.164.107	12.500	49,3	0,6
Finantza-pasiboak	9	6.785.500	0	6.785.500	6.767.677	6.762.240	5.437	99,7	3,4
Gastuak, guztira		181.530.319	32.326.181	213.856.500	201.281.730	180.569.454	20.712.276	94,1	100

Diru-sarreraren aurrekontuaren betetzea. Saillkapen ekonomikoa

Kontzeptua	Kapitulua	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Kobrantsak	Kobratzeko dagoena	Betetakoa (%)	Aitortutako guztiaren gaineko ehunekoa
Zuzeneko zergak	1	49.969.440	0	49.969.440	50.597.177	46.024.631	4.572.546	101,3	25,7
Zeharkako zergak	2	7.000.000	0	7.000.000	5.902.701	4.736.851	1.165.850	84,3	3,0
Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	3	28.385.562	373.225	28.758.787	29.312.272	25.079.291	4.232.981	101,9	14,9
Transferentzia arruntak	4	91.086.117	0	91.086.117	94.540.297	93.016.849	1.523.448	103,8	48,0
Ondare bidezko diru-sarrerak	5	2.702.000	0	2.702.000	1.657.291	2.040.852	-383.561	61,3	0,8
Inbertsio errealen besterentzea	6	0	2.038.909	2.038.909	3.268.664	3.268.664	0	160,3	1,7
Kapital-transferentziak	7	0	15.394.122	15.394.122	10.534.855	4.522.428	6.012.427	68,4	5,3
Finantza-aktiboak	8	2.387.200	7.734.477	10.121.677	1.241.888	931.781	310.107	12,3	0,6
Finantza-pasiboak	9	0	6.785.448	6.785.448	0	0	0	0,0	0,0
Diru-sarrerak, guztira		181.530.319	32.326.181	213.856.500	197.055.145	179.621.347	17.433.798	92,1	100

2013ko ekitaldiko aurrekontu-emaiza bateratua (Udala eta erakunde autonomoak)

Kontzeptua	2012ko ekitaldia	2013ko ekitaldia
Aitortutako eskubide garbiak	225.600.148	197.055.145
Aitortutako betebeharrak garbiak	-204.375.497	-201.281.730
Aurrekontu-emaiza	21.224.651	-4.226.585
Doikuntzak		
Finantzaketaren desbideratze positiboa	-18.583.826	-5.437.361
Finantzaketaren desbideratze negatiboa	4.062.807	15.660.519
Diruzaintza-gerakinarekin finantzatutako gastuak	0	7.203.910
Aurrekontu-emaiza doituak	6.703.632	13.200.483

Diruzaintza-gerakinaren egoera-orri bateratua 2013ko abenduaren 31n

(Udala eta erakunde autonomoak)

Kontzeptua	2012ko ekitaldia	2013ko ekitaldia	Aldearen ehunekoa
(+) Kobratzeko dauden eskubideak	54.187.823	49.031.576	-9,5
(+) Aurrekontuko diru-sarrerak: aurtengo ekitaldia	21.134.593	18.222.514	
(+) Aurrekontuko diru-sarrerak: Itxitako ekitaldiak	43.473.958	41.616.897	
(+) Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	930.816	300.717	
(+) Ordainketen itzulketak	3.021	6.635	
(-) Nekez kobratzeko eskubideak	-11.293.239	-10.986.920	
(-) Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	-61.326	-128.267	
(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	-57.074.829	-50.521.390	-11,5
(-) Gastuen aurrekontua: aurtengo ekitaldia	-28.283.868	-20.712.276	
(-) Gastuen aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	-22.358.443	-21.951.346	
(-) Aurrekontuz kanpoko gastuak	-6.327.931	-6.880.446	
(-) Egiteke dauden itzulketak	-111.007	-995.105	
(+) Aplikatzeko dauden ordainketak	6.420	17.783	
(+) Diruzaintzako funts likidoak	45.526.904	33.996.334	-25,3
(+) Finantzaketaren desbideratze metatu negatiboak	25.314.353	21.965.250	
= Diruzaintza-gerakina, guztira	67.954.251	54.471.770	-19,8
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta	30.854.533	21.904.669	-29,0
Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina	31.620.444	25.699.663	-18,7
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	5.479.274	6.867.337	25,3

2013ko abenduaren 31ko egoeraren balantze bateratua.
(Udala, erakunde autonomoak eta Comiruña, S.A., Pamplona Centro Histórico, S.A. eta Asistencia Municipal en Casa, S.A. udal enpresak)

Azalpena	Itxitako urteko zenbatekoa (2013)	Azalpena	Itxitako urteko zenbatekoa (2013)
A Ibilgetua	1.192.835.821	A Funts berekiak	1.141.236.751
1 Ibilgetu materiala	529.696.298	1 Ondarea eta erreserbak	718.601.543
2 Ibilgetu ez-materiala	22.379.292	2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	13.517.089
3 Erabilera orokorreko azpiegiturak eta ondasunak	631.699.432	3 Kapitaleko diru-laguntzak	409.118.119
4 Herri-ondasunak	0	B Arrisku eta gastuetarako hornidurak	0
5 Finantza-ibilgetua	9.060.799	4 Hornidurak	0
B Zenbait ekitalditan banatu beharreko gastuak	0	C Epe luzeko hartzekodunak	109.152.571
6 Kitatu beharreko gastuak	0	4 Jesapenak, maileguak eta jasotako fidantzak eta gordailuak	109.152.571
C Zirkulatzaila	95.158.823	D Epe laburreko hartzekodunak	37.605.322
7 Izakinak	12.270.328	5 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	37.477.123
8 Zordunak	46.945.222	6 Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	128.199
9 Finantza-kontuak	35.915.922		
10 Finantzaketaren egoera iragankor- rrak, aldizkatzeak eragindako doi- tzeak. Aplikatzeko.	27.351		
11 Aplikatzeko dagoen emaitza (ekital- diko galera)	0		
Aktiboa, guztira	1.287.994.644	Pasiboa, guztira	1.287.994.644

VII. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Atal honetan deskribatzen dira erregularitasunari buruz egindako fiskalizazioaren harira lortutako ondorio nagusiak, bai eta Udalaren kudeaketa ekonomikoa hobetzeko gomendioak ere.

VII.1. AURREKONTUA ETA KONTU OROKORRA

2013ko ekitaldirako ez zen aurrekonturik onetsi; izan ere, 2011ko ekitaldiko aurrekontu orokorra luzatu zen. Udalaren eta haren erakunde autonomoen diru-sarrera eta gastu bateratuen aurreikuspenak 181.530.319 eurokoak dira.

Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2013ko aurrekontuen likidazioa Alkatetzaren 2014ko uztailearen 1eko ebazpen batez onetsi zen. 2013ko ekitaldiko kontu orokorra 2014ko urriaren 2ko Osoko Bilkuran onetsi zen.

2013ko kontuei dagokienez, Haur Eskolak eta Hirigintzako Gerentzia erakunde autonomoen kontuak, Gayarre Antzokiaren kontuak, eta Udalak partaidetzaren gehiengo duen enpresa publikoen kontuak –Comiruña, S.A., Pamplona Centro Histórico, S.A., Asimec, S.A., Animsa eta Mercairuña, S.A.– kanpoko profesionalak auditatu dituzte, eta kasu guztietan –Haur Eskolak erakundearen kasuan izan ezik– aldeko iritzia eman dute.

Haur Eskolak erakundearen kasuan, iritzia aldekoa da, baina salbuespen batekin, zeren eta 2013ko abenduan jasotako zerbitzuengatik izandako gastuei dagozkien 155.000 euro ez baitira kontabilizatu, aurrekontu-krediturik ez edukitzeagatik. Gastu hori 2014an erregistratu zen.

Era berean, erakunde autonomoetan, udal sozietatean eta Gayarre Antzokia Fundazioan, jarduera ekonomiko finantzarioaren legezketasuna betetzeari buruzko auditoria bat egin zen, eta kasu guztietan aldeko iritzia eman zen.

Hona gure gomendioak:

- *Aurrekontuaren likidazio-espeditentea eta Kontu Orokorra legez ezarritako epean onestea.*

VII.2. UDALEKO LANGILE-GASTUAK

Langile-gastuak 74,68 milioi eurokoak izan ziren 2013an. Ekitaldi horretan aitortutako betebeharren gutzitzaokoaren ehuneko 40 egiten dute. Haien exekuzio maila behin betiko kredituen ehuneko 99,8 da. 2012koak baino ehuneko lau handiagoak izan ziren, batez ere 2012ko ekitaldian ez zelako abenduko aparteko soldata ordaindu.

Honakoak dira 2013an sortutako langile-gastuak, kontzeptu ekonomikoen arabera sailkatuta:

Kontzeptua	Aitortutako betebeharrak (2013)	Aitortutako betebeharrak (2012)	Aldea (%)
Hautetsien lansariak	871.394	834.898	4
Behin-behineko langileen ordainsariak	1.900.659	1.754.881	8
Funtzionarioen ordainsariak	36.708.530	34.731.556	6
Lan-kontratupekoen soldata	920.542	831.284	11
Aldi baterako lan-kontratupekoen lansariak	3.880.905	3.359.514	16
Gizarte Segurantza	9.227.997	9.460.239	-2
Pentsioak:	20.923.441	20.651.059	1
Prestakuntza	248.181	344.523	-28
Langileria-gastuak, guztira	74.681.650	71.967.955	4

Udalak ez zituen onetsi 2013ko abenduaren 31ko ez plantilla organikoa, ez langileen zerrenda, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateratua onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru-dekretuak ezarritakoaz bestera.

2013ko abenduaren 31n, Udalak 1.424 lanpostu zeuzkan; horietatik, 1.343 funtzionario-araubidekoak ziren. Hona haien egoera:

Egoera	Lanpostu kopurua
Postu beteak	836
Lanpostu hutsak	398
Lanpostu huts erreserbadunak	156
Izendapen askea	34
Guztira	1424

Kontuekin batera aurkeztutako oroitidazkian, lanpostu hutsen artean "osagarria" duten 31 lanpostu huts daude, zeinak ez baitira egoera horretan ageri plantilla organikoan eta betetako lanpostutzat hartu behar baitira.

Gastuen ehuneko 34 udaltzaingoari dagozkio. Mailen araberrako sailkapenari dagokionez, nabarmentze-koak dira C eta D maileri atxikiak, zeinek lanpostu guztien ehuneko 47 eta 29 egiten baitute, hurrenez hurren.

2013an ez zen enplegu eskaintza publikorik izan.

Udal langileen behin-behinekotasun tasa, horren barne direla gizarte enplegu babestua dutenak eta lan-tegi eskoletakoak, ehuneko 23 ingurukoa da, eta, besteak beste, honako lanpostuetan du eragina: instalazioen funtzionamenduaren arloko langile laguntzaileak, administrariak eta ordenantzak, besteak beste. Bestalde, lanpostu hutsak betetzen dituzten langileen ehuneko 38 2009tik eta lehenengotik dago kontratatuta.

Lanpostu hutsen ehuneko 38k ez dute aurrekontu-zuzkidurarik, zeren eta ez baitzegoen aurreikusita lanpostu horiek ekitaldian zehar betetzea.

Udalaren zortzi alorrek izendapen askeko 24 pertsona dauzkate: 11 zuzendari, bi zuzendariorde –Gizarte Ongizatearen eta Berdintasunaren alorretan– eta 11 idazkari tekniko. Hiru alorrek (Gizarte Zerbitzuak, Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurumena, eta Proiektuak eta Hiri Kontserbazioa) bina unitate organiko dauzkate, eta unitate bakoitzak zuzendari bat eta idazkari tekniko bat dauzka.

- Aparteko lanorduak.

Aparteko lanorduetan 2013an egindako gastua 492.688 eurokoa izan zen. Gastu hori 29.688 orduri dago-kio. Horietatik, ehuneko 81 Udaltzaingoak egin ditu, eta haien % 48 Sanferminetan izan dira.

Hurrengo taulan, aparteko orduen bilakaera erakusten dugu 2010etik 2013ra:

Urtea	Gastua	Ordu kopurua	Hartzaileen kopurua
2010	634.184	35.855	572
2011	703.611	42.889	737
2012	479.486	29.057	551
2013	492.688	29.688	500

Gainera, 7.938 aparteko ordu lan-denborarekin konpentsatu ziren.

1992ko abenduko alkatetza-dekretu batez, langile bakoitzeko aparteko lanorduen gehieneko muga ezarri zen, 50 lanordukoa, behar bezala justifikatutako salbuespenetan izan ezik.

2013an, 156 langilek –horietatik 128 poliziak ziren– urtean 50 ordu baino gehiago egin zituzten.

Udaltzaingoak eman dizkigun datuen arabera, 2013an kidego horri aitortutako aparteko orduak honako arrazoiei zor zaizkie:

	Guztira
Sanferminetarako hitzarmena	10.216
Txanda luzatzeagatiko esku-hartzeak	5.171
Lanaldi osoa	3.672
Bestelakoak	2.836
Epaitegia	2.585
Sanferminak	1.392
Bilerak	1.326
Zerbitzu bereziak	588
Ikastaroak	545
Kirol probak	275
Dilijentzia judizialak	253
Guztira	28.859

Guztietatik, 3.526 lanordu lan-denborarekin konpentsatu ziren.

Udaltzaingoaren aparteko lanorduen ehuneko 35 zor zaio hitzarmen bidez aparteko 32 lanordu aitortuta edukitzeari, Sanferminetan lan egiteagatik.

2014ko otsailean, Osoko Bilkurak erabaki zuen Udal Gobernuari exijitzea bete zezala Nafarroako Kontuen Ganberaren gomendioa; hartan eskatzen zen aparteko lanorduek egin aurretik baimentzeko eta kontrolatzeko 50 lanordutik gorako kopurua gainditzekotan, aparteko kasu bereziak edo urgentziakoak izatea, behar bezala justifikatuak.

Horri dagokionez, Giza Baliabideen azpi-alorrak erabaki hori alor guztiei jakinarazi zien, eta gomendioak bete zituzten premiatu zituen.

- Lantegi eskolak.

Lantegi eskolen helburu orokorra da lan merkaturan sartzeko zailtasunak dituzten 25 urtetik beherako gazte langabetuen laneratzea erraztea, prestakuntzaren eta enpleguaren bitartez.

2010eko azaroan, Udalak Arantzadi Parkeko Lantegi Eskolaren eta Eraikuntzaren Lantegi Eskolaren proiektuak aurkeztu zizkion Nafarroako Enplegu Zerbitzuari. Proiektu horiek lau fasetan exekutatu ziren, 2011ko irailaren 1etik 2013ko abuztuaren 31ra, eta honako emaitzak eman zituzten aipatutako aldian:

	Ikasle kopurua	Prestakuntza lantaldeko pertsona kopurua	Behin betiko	Betetako gastua	Jasotako diru-laguntza
Arantzadi Parkeko Lantegi Eskola	42	10	1.743.676	1.264.177	1.114.118
Eraikuntzaren Lantegi Eskola	60	16	2.693.842	1.910.002	1.601.210

Arantzadiko proiektuak aurreikusten du 42 ikasleri prestakuntza eta enplegua ematea, honako espezialitate hauetan: oihangintza eta lorezaintza, soldadura eta iturgintza eta eguzki instalazio termikoa. Halaber, lorategiak berronertzen eta egokitzen lagundu nahi da. Eraikuntzaren lantegi eskolan aurreikusten da prestakuntza eta enplegua ematea 60 ikasleri, honako espezialitate hauetan: igeltserotza, zurgintza eta harlantza. Hiria ondatu historikoaren zaharberritzean lagundu nahi da horrekin.

Lantegi eskolen helburua da ehuneko 70eko laneratzea lortzea. Hala eta guztiz ere, krisi ekonomikoko egoera dela eta, jotzen da bi eskolen 2011-2013 aldiko emaitzen arabera, ehuneko 30eko laneratzea lortu dela.

Udalak Nafarroako Enplegu Zerbitzuari justifikatu dizkio 2011-2013 aldian bi lantegi eskoletan egindako gastuak.

Lantegi eskoletako ikasleen, zuzendariaren, irakasleen eta laguntzako langileen hautapena Udalak eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuak egin zuten.

Eskoletako langile teknikariak hautatu ziren enplegu eskaintza orokor baten bitartez, titulazioa, lanbide-jarduerako esperientzia eta gazteen laneratzearen arloko prestakuntza programetan izandako esperientzia zela-eta ezarritako baldintzak betetzen zituztenen artetik. Esperientzia, prestakuntza eta lanposturako egokitasuna baloratu ziren.

Ikasleen hautapen-prozesurako, publikitatea egin zen, bai Udaletik, bai Nafarroako Enplegu Zerbitzutik, eta eskatzaileen gaitasuna baloratu zen.

Bi eskoletako zuzendaritzako eta prestakuntzako langileen lansariak eta ikasleen lagin bat aztertu ditugu. Bat datoz Udaleko 2011-2014 urteetarako langileen hitzarmenean araututako lansariekin, dagozkien kontratuetan, eta eskoletako langileen lanpostuen kasuan, plantilla organikoan jasota daude.

Arantza-dikolantegi eskolako zuzendariak eta begiraleek iraupen jakin bateko kontratua dute, eta eraikuntzarako lantegi eskolakoek, berriz, plantillako lanpostu hutsak betetzeko kontratu administratiboak.

Kontratu administratiboa dutenek, Osoko Bilkuraren erabakiz, eskubidea dute 1998tik hirurtekoen arabeko antzinasuna kobratzeko. 2010ean, Gobernu Batzarrak konpentsazio-osagarri bat aitortu zien, 68/2009 Foru Dekretuan ezarritako bosturtekoen sistemaren arabera aplikatutako antzinasunaren eta kobratzen ari diren hirurtekoen artean dagoen aldearengatik. Iraupen jakin bateko kontratua duten langileek antzinasuna hirurtekoen arabera kobratzen dute, beren hitzarmenean jasotakoaren arabera.

Kontratu administratiboa duten langileek familia-laguntzarengatik konpentsazioa ere jasotzen dute, hain zuzen ere funtzionarioentzako 2004-2007 hitzarmenean onetsitakoa.

- Klase pasiboen ordainsariak

Langile pasiboen ordainsariak 20.864.455 euro egin zuten 2013an; 2012an baino ehuneko 1,78 gehiago. Honako hauei dagozkie:

Pentsio mota	Zenbatekoa	Laguntza jasotzen dutenak
Erretiroa	15.480.238	551
Alarguntasuna	4.296.853	279
Zurztasuna	1.088.364	93
Guztira	20.865.455	923

Udalak kostu garbiaren ehuneko 77,1 finantzatzen du, langileei egindako atxikipeak deskontatuta, 2013ko ekitaldirako finkatu den 12.467.210 euroko mugara iristeraino. Gainerakoa, 7.814.369 euro, Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura finantzatu behar da. 2013an, Udalak 2012ko ekitaldiko pentsioen kostu garbiari dagokion 7.505.334 euroko kopurua jaso zuen.

2013an langile funtzionarioen klase pasiboei ordaindutako ordainsarien lagin bat aztertu dugu, eta ekitaldi horretarako onetsitako zenbatekoaren, jasotzailearen familia-inguruabarren eta aplikatzekoa den legediaren arabekoak dira.

Hona gure gomendioak:

- *Ekitaldi bakoitzerako plantilla organikoa eta langileen zerrenda onestea.*
- *Plantillako lanpostu hutsen aldi baterakotasuna aztertzea, eta lege- eta aurrekontu-xedapenek horretarako bidea ematen dutenean, langileen kontratu egonkorren bidez artatzea Udalaren egiturazkoak diren eta izaera finkoa duten jarduera eta zerbitzuak.*

VII.3. UDALAREN ONDASUN ARRUNTAK ETA ZERBITZUAK EROSTEA

Udalaren ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak 63,37 milioi eurokoak izan ziren 2013an. 2013an aitortutako betebeharren guztizkoaren ehuneko 34 egiten dute. Haien exekuzio maila behin betiko kredituen ehuneko 96 da. 2012an aitortutako gastuak baino ehuneko bat gehiago izan ziren. Igoera hori ez da garrantzitsua, are gehiago kontuan hartua 2012ko irailaren 1ean indarra hartu zuela BEZ tasen igoerak.

Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuetako kontusailak, 2013ko ekitaldian zenbateko handiagoa izan zutenak, honakoak dira:

Kontzeptua	Aitortutako betebeharrak (2013)	Aitortutako betebeharrak (2012)	Aldea (%)
Bide publikoa garbitzea	7.775.139	7.533.123	3
MUGAren kudeaketa-kontratua	6.969.326	6.099.317	14
Berdegunek mantentzea	3.574.529	2.925.216	22
Gizarte jardueren kudeaketan laguntzea	3.157.237	1.687.928	87
Kultura azpiegituren jardueren kudeaketa	2.909.959	3.785.842	-23
Argiteria publikoa	2.907.147	2.796.305	4
Ikastetxeen garbiketarako kontratuak	2.036.304	2.102.674	-3
Kirol azpiegituretako jardueren kudeaketa	1.545.597	1.484.616	4
Arreta programen jarduerak kudeatzea	1.274.526	1.141.682	12
Ibilgailuak erretiratzeko kontratua	1.169.721	1.151.978	2
Kultur zabalkundeko programak	1.087.201	1.082.096	0,5
Osasungarritasun publikoaren arloko kontratuak	1.017.610	1.156.407	-12
Sanferminetako ospakizunak	947.144	944.633	0,3

Gastuen honako lagin hau fiskalizatu da:

Kontzeptua	Aitortutako betebeharrak (2013)
Bide publikoko aparkatze arautua (MUGA)	6.969.326
Berdegunek mantentzea	3.574.529
Kirol azpiegituretako jardueren kudeaketa	1.545.597
La Pamplonesa musika bandaren elkarteak	931.242
Publizitatea eta propaganda	652.671
Gazteria Etxearen kudeaketa	590.906
Berdegunetako material teknikoa	239.348
Sanferminetako zentroaren kalte-ordaina	227.654
Garabiak erretiratutako ibilgailuen biltegiarako lokalen alokairua	223.140
Udaltzaingoaren ibilgailuen alokairua	186.568
Aldamioetako zerbitzua kontratatzea	125.452
Tokiko Agenda 21	
Ingurumen hezkuntzarako museoaren kudeaketa	75.926
Uretako faunari buruzko txostena	10.890
Kontratuak, herritarren segurtasunaren arloko azterlanak	82.865
Rating kreditu-kalifikazioa	18.150

Fiskalizatutako laginean, honako alderdi orokorrak konprobatu ditugu:

Aztertutako gastuak justifikatuta, onetsita, kontu-hartzaitzak onartuta (aldez aurretiko esku-hartze mugatua) eta zuzen kontabilizatuta daude, eta, oro har, 30 egun naturaletik beherako epean ordaintzen dira.

Orokorrean, prozedurak ezarri eta aplikatu direla kontrolatze aldera fiskalizatutako zerbitzuak baldintzarrietan edo hitzarmen arautzaileetan ezarritako estipulazioen arabera betetzen eta justifikatzen direla.

Eduki ekonomikoa duten zenbait ekintzatan –esate baterako, kontratuen aldaketa edo haien luzapena, aldez aurretiko esku-hartzearen eginkizuna ez da mugatzen egiaztatzea aurrekontuan krediturik baden edo gastua kontusailari dagokion, hori bera organo eskudunak onesten baitu; izan ere, beste alderdi batzuetara ere zabaltzen da. Hala eta guztiz ere, esku hartzeko jarduketak, aipatutakoez bestelakoak, ez daude determinatuta eta ez dira ageri fiskalizatutako espedientean edo dokumentuan.

- Berdeguneen mantentzea.

Berdeguneen mantentze-zerbitzua 2012an bi enpresari esleitu zitzaizkien, 8.346.434 euroko guztizko prezioan, gehienez ere lau urterako.

Egiaztatu dugu Udalaren Lorezaintza Zerbitzuak prozedura batzuk ezarri eta aplikatu dituela zerbitzuaren prestazioa baldintza teknikoen orrian ezarritakoaren arabera betetzen dela, eta lanik egin ez den lanaldietan sortutako defizitaren kudeaketa hobetu dela; izan ere, horixe eman genuen aditzera 2012ko ekitaldiari buruzko fiskalizazioan.

Bedeguneen mantentzerako kontusailean oker kontabilizatu dira plaza baten birmoldatze-lanaren proiektuari dagokion 3.720 euroko kopurua, zeina inbertsioen kapituluari egotzi beharko litzaiokeen.

- Bide publikoaren aparkatze mugatua (MUGA): gastuak ehuneko 14 egin du gora 2012ko ekitaldiarekin alderatuta; horren arrazoia da, nagusiki aparkatze mugatua barruti berrietan hasi dela 2013ko maiatzetik aurrera. Kontratu-aldaketa aplikatzekoa den legediaren arabera izapidetu zen.

2013an, ez zen kontratuko prezioen berrazterketa aplikatu, zeren eta ekitaldi horretan ez baitzen onetsi zerbitzuko langileei aplikatzekoa zaien hitzarmena.

- La Pamplonesa Musika Bandaren Elkarteak: banda horrek eskaintzen dituen musika-ekitaldiak Udalarekin 1986an 30 urterako izenpetutako hitzarmen batean araututa dago; hitzarmen hori 2006an eta 2012an aldatu zen. Azken aldaketan, prezioaren urteroko gaurkotzearen nahitaezkotasuna kendu zen, eta 931.242 euroko prezioa ezarri zen 2012ko ekitaldirako eta hurrengoetarako.

- Gazteria Etxearen kudeaketa: zerbitzu hori nabarmentzeko moduko atzerapen batez lizitatu zen. Hartara, 2012an, azken luzapena amaitu zen, eta kontratua 2013ko abenduan esleitu zen. 2013an zehar, zerbitzua ematen jarraitu zen, interes publikoko arrazoiak tarteko, aurreko kontratuko termino berdinetan.

- Berdeguneetako material teknikoa: 2013ko ekitaldian 2012an sortutako gastu batzuk kontabilizatu dira, gutxienez ere 22.000 euro egiten dutenak. Lore-hornikuntzarako kontratuaren luzapena, 56.923 euro egiten duena, bost hilabeteko atzerapenarekin onetsi zen.

- Sanferminetako zentroaren kalte-ordaina: 227.654 euroko gastua dagokio lortu gabeko irabaziengatik ordaindutako kalte-ordainari; hain zuzen ere, laguntza kontratuaren eta exekutatu gabe gelditutako edukiaren ehuneko sei da. Udalak, guztira, 6,37 milioi euro inbertitu ditu (horren barne dela suhiltzaileen parke zaharra eraisteko eta berria eraikitzeko 2,42 milioiko kopurua) amaitutako kontratu batean. Nafarroako Gobernuak 4,06 milioi finantzatu zituen.

- Garabiak erretiratutako ibilgailuen biltegiako lokalen alokairua: San Roqueko aparkalekuaren eraikuntzaren eta kudeaketaren esleipen-hartzaileak, kontratua arautzen duten orrietan ezarritako betebeharra betetz, solairu berezitu bat atondu zuen udal garabiak erretiratutako ibilgailuen biltegiako.

2013an, Udalak 223.140 euro ordaindu zituen 250 aparkatze-toki zeuzkan solairu bat eta hari erantsitako azalera gehigarri bat alokatzeko, non zerbitzuak eta azpiegitura batzuk (bulegoak, biltegia, aldagelak eta abar) baitaude, aparkalekuaren gaineraketik berezita. Prezio horretan, biltegiari atxikitako instalazio eta espazioak sartzen dira, bai eta hornikuntza-, instalazio-, mantentze- eta aseguru-gastuak ere.

Udalak emandako datuetatik ageri geratzen da alokatutako toki guztiak ez direla betetzen. Udalak uko egin diezaieke bai toki guztiei, bai haien okupazio partzialari, betiere 100 tokiko gutxienezko betetzea bermatuta; hala bada, alokairuaren zenbatekoa birdoitu beharko da.

• Kreditu-kalifikazioa: Udalak 19.073 euro gastatu zituen kreditu-kalifikazioa lortzen. Zerbitzu hori zuzenean kontratatu zen eta, kopurua zela eta hiru eskaintza eskatu behar izan ziren, gutxienekoa baita hori. Bi kontusail desberdinetan kontabilizatu zen.

Hona gure gomendioak:

• *Osoko Bilkurak erabakitzea, kudeaketa prozesuan daukaten garrantziari erreparatuta, zein alderdi egiaztatu behar diren eduki ekonomikoa duten ekintzen, dokumentuen edo espedienteen aldez aurretiko kontu-hartzailtza egiterakoan.*

• *Kontratuen lizitazioa behar den denborarekin izapidetzea, aurreko kontratuaren esleipen-epea amaituta indarrean sar daitezen.*

• *Gastuak sortzen diren ekitaldian kontabilizatzea.*

• *250 aparkatze-toki alokatzeko beharra aztertzea, kontuan izanda haien benetako okupazioa zein den.*

• *Kontratuak esleitzea dagokien prozeduraren arabera, betiere haiek direla-eta kalkulaturako balioaren arabera, haien zatiketzea saihestuz.*

VII.4. UDALAREN INBERTSIOAK

Udalak 2013an egindako inbertsioek 6,78 milioi euro egin zuten. Zenbateko hori Udalak ekitaldian egindako gastu guztien ehuneko 3,6 da. Haien exekuzio maila behin betiko kredituen ehuneko 93 da.

Honako inbertsioak fiskalizatu ditugu –2013an egindako inbertsio guztien ehuneko 62 egiten dute–:

Kontzeptua	Aitortutako betebeharrak (2013)
Labriteko baluarte eta Magdalenako frontea lehengoratzeara	1.640.355
Zolatzeak	789.716
Etxabakoizko igogailua	635.789
Lur-sailen urbanizazioa	524.183
Txantreako Erretirodunen Kluba	400.000
San Frantzisko Ikastetxea	198.248

Aurreko inbertsioetatik, honako obra esleitu zen 2013ko ekitaldian:

Kontzeptua	Prozedura	Zenbat lizitatuak	Lizitazio-prezioa, BEZik gabe	Esleipeneko prezioa BEZ gabe	Esleipeneko baja, %
Txantreako Erretirodunen Kluba	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti	17	558.439	429.998	23

Oro har, fiskalizaturako obren exekuzioak eta kontratu-aldaketek, bai eta erretirodunen klubaren obraren esleipenak ere, kontratu-legedia bete dute, eta gastuak onetsita, kontu-hartzailtzak baimenduta (aurreko kontu-hartzailtza mugatua), justifikatuta eta zuzen kontabilizatuta daude.

Aztertutako lagineko gastuak, oro har, 60 egunetik beherako epean ordaindu dira.

Gastu proiektuen kudeaketarako aplikazio informatikoak ez ditu zuzen interpretatzen finantzaketa atxikia duten inbertsioen aurreikuspenak, exekuzioa eta finantzaketa jarraitzeko behar diren datu guztiak; hori dela eta, ez dira zuzen kalkulatu finantzaketaren koefizienteak eta desbideratzeak.

Egindako fiskalizaziotik hainbat alderdi nabarmendu nahi ditugu. Hona:

- Labriteko Baluartearen eta Magdalenako Aurrealdea zaharberritzea: proiektuaren aldaketak 18.020 euroko gastua ekarri zuen, eta kanpoko profesionalekin kontratatu zen, nahiz eta proiektua udal teknikari batek idatzia izan. Gastu hori ez zitzaion egotzi inbertsioari; izan ere, gastu arrunt moduan kontabilizatu zen.

- Etxabakoizko igogailua: kontratuaren aldaketak ez zuen gastu handiagorik ekarri, zeren eta esleitutako prezioaren igoera, kontrajarritako prezio berriei eta neurketa handiei zor zaiena, proiektuko kontusail batzuk kenduz konpentsatu baitzen. Ez dago jasota kontratu-aldaketa hori fiskalizatu zenik.

Obra honen ziurtagirien ordainketarako batez besteko epea 99 egunekoa izan zen.

- Lursailen urbanizazioa: Arrosadia-Merkataritza ARS-4 unitaterako aurreikusitako urbanizazio gastuei dagokie; 6,55 milioi euro egiten dute. Hirigintza Gerentziak jabeei konturako aurrerapen bat eskatu zien. Aurrerapen hori 524.183 eurokoa zen Udalaren kasuan. Gaur den egunean, Udalak ez dio Gerentziari ordaindu.

- Txantreako Erretirodunen Kluba: obra prozedura ireki bidez esleitu zitzaion eskaintzarik onenari. Lizitazioa eskaintza ekonomiko merkeena aurkeztu zuen, lizitazio prezioa baino ehuneko 23 merkeagoa; gainera, aurkeztutako lizitazioaren artean, bigarren balorazio tekniko onena lortu zuen. Obra 2014an amaitu zen, epearen barruan eta esleipen-preziotik inongo desbideratzerik izan gabe.

- San Frantzisko ikastetxea: 2013an kontabilizatutako gastua 2009an esleitutako obraren amaierako ziurtagiriari dagokio; izan ere ordaintzeko gelditu zen hori enpresa esleipen-hartzailea konkurtso-egoeran zegoelako.

Hona gure gomendioak:

- *Eduki ekonomikoa duten ekintzak dakartzaten kontratu-aldaketak fiskalizatzea.*
- *Gastu-proiektuak kudeatzeko aplikazio informatikoa hobetzea.*

VII.5. UDALAREN TRANSFERENTZIENGATIKO GASTUAK

2013an, Udalak 32,26 milioi euro egiten duten transferentziak eta diru-laguntzak eman zituen. Honakoak izan ziren onuradunak:

Entea	Arruntak		Kapitalekoak	
	Aitortutako betebeharra	Aldea, ehuneko-tan 2012/13	Aitortutako betebeharra	Aldea, ehuneko-tan 2012/13
Erakunde autonomoak	7.154.500	12	4.850.693	10
Udal sozietateak	5.017.343	25	2.550.000	-19
Foru Komunitatea	214.824	1	0	
Mankomunitatea	2.608.909	3	0	
Enpresa pribatuak	54.891	-30	0	
Familiak eta irabazi asmorik gabeko erakundeak	7.327.250	7,5	2.484.816	-46
Guztira	22.377.717	12	9.885.509	-21

Transferentzia eta diru-laguntza arruntek 22,38 milioi euro egin zuten. 2013ko ekitaldian aitortutako betebeharren guztizkoaren ehuneko 12 dira. Haien exekuzio maila behin betiko kredituen ehuneko 98 da. Aurreko urtearen aldean, ehuneko 12 egin zuten gora, batez ere erakunde autonomoei, Animsa sozietate publikoari eta Gayarre Antzokia Fundazioari ekarpen handiagoak egin zitzaizkielako.

Kapital-transferentzia eta diru-laguntzak 9,89 milioi eurokoak izan ziren. Udalaren gastu guztien ehuneko bost da 2013an. Haien exekuzio mailak behin betiko kredituen ehuneko 99,5 egin zuen. 2012an emandakoak baino ehuneko 21 gutxiago izan ziren, zeren eta etxebizitzak zaharberritzeko familiei emandako diru-laguntzek ehuneko 40 egin baitzuten behera, eta ehuneko 35, berriz, Pamplona Centro Histórico udal sozietate publikoarentzako ekarpena.

Transferentzia eta diru-laguntza arrunten eta kapitalekoen honako lagin hau fiskalizatu dugu:

Kontzeptua	Aitortutako betebeharra, guztira	Onuradunen kopurua
Transferentzia arruntak		
Haur eskolak	5.656.900	1
Animsa, S.A.	2.854.050	1
Gayarre Antzokia	958.293	1
Ikastetxei, eskola orduz kanpoko jardueretarako	163.714	44
Gurasoen elkarteei.	106.668	34
Hobariak	49.878	1
Kapital-transferentziak		
Hirigintza Gerentzia	4.810.696	1
Haur eskolak	40.000	1
Animsa, SA	1.050.000	1

Ikastetxe publiko eta itunduei eskola orduz kanpoko jardueretarako eta ikasleen gurasoen elkarteei eskola orduz kanpoko jarduerak, aisialdiko jarduerak eta prestakuntza jarduerak egiteko eta funtzionamendu gastuetarako emandako diru-laguntzak lehiaketa publiko bidez eman ziren, lehenengoen kasuan banakako ebaluazioaren araubidea erabiliz eta bigarrenen kasuan norgehiagokaren araubidea erabiliz. Bai kontzesioa, bai onuradunek diru-laguntzekin egindako jardueren justifikazioa diru-laguntzetarako oinarri arautzaileetan ezarritako prozeduraren arabera izapidetu ziren.

Haur Eskolak erakunde publikoari eta Gayarre Antzokia Fundazioari egindako ekarpenak Udalarekin izenpetutako programa-kontratuan edo akordioan (fundazioaren kasuan) oinarrituta daude, eta urteko kontu auditatuak aurkeztuz justifikatu dira.

Hirigintza Gerentziari egindako kapital-transferentzia justifikatuta dago eta kasuko obra-ziurtagiritan oinarrituta dago.

Egindako transferentzia guztiak eta eman eta ordaindu diren diru-laguntza guztiak onetsita eta fiskalizatuta daude.

- Haur Eskolak: 2013an, Udalak 5.656.900 euro eman zizkion Haur Eskolak erakunde autonomoari, bere jarduketatik heldutako eragiketa arruntak finantzatzeko. Ekarpene hori aurrekontuan aurreikusitakoa zen, eta ez zen erregularizatu, 2012an jarraitutako irizpidearen aurka, Haur Eskolak erakundearen aurrekontu-betetzearen mailaren arabera.

2013an, Haur Eskolak erakundeak 360.434 euroko aurrekontu-emaiza doitua lortu zuen; aurreko ekitaldian, berriz, 84.141 eurokoa izan zen emaitza hori. Ez dago jasota Haur Eskolak erakundeari Udalak ematen dion ekarpenaren likidaziorako prozedura finkatu denik.

- Animsa, S.A.: Animsa sozietate publikoa –haren kapitalaren ehuneko 77,68ren jabea Iruñeko Udala da– udalei zerbitzu informatikoak emateaz arduratzen da 1984tik.

2013an, Animsak 3.904.050 euro jaso zituen Udaletik honako xedeetarako: 1.004.050 euro kanpoko hornitzaileak kontratatuzko (guztizkoaren ehuneko 26); 1.850.000 euro gastu arruntak finantzatzeko, eta 1.050.000 euro inbertsioetarako. Gainera, 490.398 euro jaso zituen mezuak kudeatzeko zerbitzuengatik eta 010 zerbitzuarengatik. Kopuru hori gastu arrunten eta zerbitzuen atalean kontabilizatu zen.

2013an emandako ekarpenetik, 203.069 euro 2014an kanpoko kontratazioak eta inbertsioak finantzatzeko dira.

Animsak Udalar BEZa jasanarazten dio Udaletik jasotzen dituen transferentzia guztietan.

Animsak 2013ko ekitaldirako zerbitzu informatikoen programa aurkeztu zion Udalari, non ekitaldi horretarako aurreikusitako jarduketa plana eta proiektuak deskribatzen baitira. 3.704.050 euro egiten du, guztira, programa horrek, eta gero, inbertsioetarako beste 200.000 euro gehitu zitzaizkion.

- Hobariak: 2013an, Civivox sarearen eta San Juan Bosco zentroaren kudeaketaren esleipen-hartzaileari 49.878 euro ordaindu zitzaizkion, emandako zerbitzuen prezioen gainean aplikatu eta arauan jasotako zeuden hobariaren kontzeptuan. Esleipen-hartzaileak aplikatutako hobariak justifikatu zituen jarduera mota bakoitzean onuradun izandako pertsonen zerrenda aurkeztuz.

Hona gure gomendioak:

- *Udalak Haur Eskolak erakunde autonomoari ematen dion ekarpena likidatzeko prozedura definitzea.*
- *Kontrolak ezarri eta aplikatzea Civivox zentroetan eta San Juan Bosco zentroan ematen diren zerbitzuen prezioan hobariaren onuradun izateko baldintzak betetzen direla konprobatzeko.*

VII.6. TRIBUTUAK, PREZIO PUBLIKOAK ETA UDALAREN BESTELAKO DIRU-SARRERAK

Tributuengatik, prezio publikoengatik eta bestelako diru-sarrerengatik 2013an aitortutako eskubideek 82,99 milioi euro egin zuten behera. Kopuru hori Udalaren diru-sarrera guztien ehuneko 44 da. Honako hauei dagozkie:

(euroak, milioitan)

Kontzeptua	Zenbatekoa	Betetakoa (%)	Aldearen %, 2013/12
Zuzeneko zergak	50,60	101	5
Zeharkako zergak	5,90	84	-40
Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	26,49	103	7

Zenbateko handiena egiten duten aitortutako eskubideak honakoei dagozkie: hiri-kontribuzioa -27,07 milioi-, bide publikoaren aparkatze mugatuaren bidezko diru-sarrerak (MUGA) -10,36 milioi-, jarduera ekonomikoaren gaineko zerga -9,45 milioi-, zirkulazio-zerga -9,44 milioi- eta eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga -5,90 milioi-.

Udalak aplikatutako tasak Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legeak jasotzen duen sortaren tarte altuan kokatzen dira, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala:

Zerga	Udala	2/95 Foru Legea
Hiri-lurraren gaineko kontribuzioa	0,3665	0,10 - 0,50
Landa-lurren gaineko kontribuzioa	0,7947	
Jarduera ekonomikoaren gaineko zerga	1,32 eta 1,40 bitarte	1 - 1,4
Lurren balio-gehikuntza	17,80	8-20
Eraikuntza, instalazioak eta obrak	5	2-5
Luxuzko gastuen gaineko zerga	8	10, gehienez
Etxebizitza hutsen gaineko zerga	0,1466	0,04-0,2

Honako zerga, tasa eta berandutze nahiz geroratzteen interesengatiko diru-sarrerren lagin bat fiskalizatu dugu:

Kontzeptua	Aitortutako eskubideak	Kobrantzak, 2013-12-31n	% kobrantza
Hiri-lurren gaineko kontribuzioa	27.065.945	25.938.079	96
Bingo-sarien gaineko zerga	815.133	603.677	74
Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga	5.902.701	4.736.851	80
Ibilgailuan barruti mugatuetan aparkatzea (MUGA)	10.363.434	9.482.200	91
Zerbitzu enpresen aprobetxamendu bereziak	3.257.639	3.089.899	95
Bide publikoaren okupazioa: mahaiak eta aulkiak	586.406	414.186	71
Kalte-ordainak eta obren ordezkotako betearazpena	531.661	330.271	62
Musika eskola	166.390	164.787	99

Arestian aipatutako tributuen eta diru-sarrerren lagin batean egiaztatu dugu ezen, orokorrean, haien likidazioa eta diru-bilketa ordenantzen eta arau erregulatzaileren arabera egin direla.

- Udalak 2008an, tributuen ikerketarako eta ikuskapenerako unitate bat sortu zuen. Lehenetsitako jarduketara gisa honakoak jo ziren: eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zerga (EIOZ), jarduera ekonomikoen gaineko zerga, hirigintza-lizentziak, udalerriko lur-azpiaren, luraren eta hegalaren okupazio tasa eta ingurumen arloko eta jarduera kaltegabeen arloko baimenenak. 2013an, Udalak tributuen ikuskapenerako plan orokor bat onetsi zuen, bai eta jarduera ekonomikoen gaineko zergarako berariazko plan bat ere. 2013an egin-dako ikuskapen-jarduketan ondorioz 189 ikuskapen-akta egin ziren eta 963.262 euroko diru-sarrerak lortu ziren Udalarentzat; diru-sarrera horien ehuneko 88 eta akten ehuneko 92 EIOZari zegozkion.

Ikuskapen unitatearen antolamendu-egiturak eta jarduketara-prozedurek, batzuetan, halako elkarren gainjaritze bat eragiten dute ikuskapen-jardueretan eta tributukudeaketaren jardueretan.

- Lurraren kontribuzioa: Udalak ez du balorazio ponentzia gaurkotu 1998tik, eta ez da egokitu Toki Ogasunei buruzko Foru Legean ezarritako lurraren kontribuzio zerga-tasa bakarrera; izan ere, jarraitzen du oraindik ere landa izaerako ondasunei eta hiri-ondasunei tasa berezituak aplikatzen.

Iruñeko udalerrian, Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko 12/2006 Foru Legean jasotakoetatik zenbait inguruabar gertatzen dira, ponentzia berri bat onetsi ahal izateko: azken berrikuspenetik bost urte iragan dira eta aldaketak gertatu dira lurraren erabilera- eta aprobetxamendubaldintzetan.

Zenbait desadostasun badaude 2002an onetsitako udal planaren eta balorazio-ponentziaren artean, zenbait lurzoruren sailkapenari dagokionez. Hartara, udal planean hiri-lurzoru edo lurzoru urbanizagarri gisa jasotako zenbait eremu ponentzian landa lurzoru gisa sailkatuta daude; bestalde, ponentziak ez ditu jasotzen planeamenduan gertatutako aldaketak, eta balorazioa dela-eta zenbait inkoherentzia ere badaude, zeren eta eremu berean poligono fiskal desberdinak baitaude. Inguruabar hori dela eta, Udalak behar baino diru-sarrera gutxiago jasotzen ditu lurren balio-gehikuntzaren zergarengatik eta lurraren gaineko kontribuzioarengatik.

2013an, Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki zuen balorazio-ponentziaren berrikuspen partziala egitea, ponentzia indarduna udal planaren zehaztapenei egokitzeko. Ponentzia hori egiteko lana 14.967 euroko prezioan esleitu zen, BEZik gabe. Amaitu gabe daude lan horiek.

- Binguoaren gaineko zergan, jokia antolatzen duen enpresak, hilabete bakoitzaren lehenengo hamar egunetan, behar den aitorpen-likidazioa aurkeztu beharra dauka. Iruñean dauden bi enpresetatik, batek ez ditu zerga-betebeharrak betetzen. Enpresa horrek 1,41 milioi euro zor dizkio Udalari, 2009ko, 2011ko, 2012ko eta 2013ko ekitaldiei dagozkienak. Premiamendu-prozeduran eta Udalaren zerga-ikuskaritzaren esku dago kasua. 2013ko ekitaldian, enpresak ez zituen aitorpenak epean aurkeztu eta Udalak behin-behineko bi likidazio egin zituen, Foru Administrazioetik lortutako datuak oinarri hartuta, eta tributuko arloko arau-hauste larri horrengatik zehapena ezarri zion. Zehapena 99.222 eurokoa izan zen, eta ehuneko 40 gutxitu zen, zeren eta Udalak jo baitzuen arau-hauslea harekin ados zegoela, haren aurkako inongo errekurtsorik aurkeztu ez zuelako.

- Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga: zergaren behin-behineko likidazio guztien behin betiko likidaziorik ez da egiten.

- Hutsik dauden etxebizitzaren gaineko zerga 6. ordenantzan araututa dago; hartan ezartzen zen zerga hori ordainarazteko Udalak etxebizitza hutsen erregistro bat egiten zuela. Horri dagokionez, 2012ko urriaren 31ko Osoko bilkurak erabaki zuen Iruñeko Udalak sei hilabeteko epean Etxebizitza Hutsen Erregistroa egiten zuela.

Alabaina, 2013an, urriaren 31ko 31/2013 Foru Legeak erregistroari buruzko araupetzea aldatu zuen. Udalek hutsik dauden etxebizitzaren zentsu bat mantendu beharko dute, eta zentsu horiek Hutsik dauden Etxebizitzaren Erregistroa osatuko dute. Hura egitea Foru Administrazioan etxebizitzaren arloko eskumena duen departamentuari dagokio. Erregistro hori arautzen duen 10/2010 Foru Legeko artikulua indarra eta aplikazioa, ordea, etenik daude, Konstituzio Auzitegiaren probidentzia bat tarteko.

- Bide publikoa terrazekin okupatzea: lurzoru publikoaren erabilera pribatibo hori arautzen duen ordenantzak ezartzen du ezen, behin hura indarrean sartu eta hiru hilabeteko epean, Udalak terrazak kontrolatzeko plan bat jarriko duela abian, instalazio guztien egoera aztertzeke eta haien elementu guztiak ordenantza ezarritakoaren arabera egokitzeko. 2013an zehar terraza batzuen egoera aztertzeke jarduketak egin badira ere, ez dago jasota terrazak kontrolatzeko planik egin denik.

- Musika eskola: akats batzuk tarteko 1.865 euro egiten duten eskubide batzuk aitortu dira. Baliogabetu beharrekoak dira. Musika eskolak ematen dituen zerbitzuen prezioak haren guztizko kostuaren ehuneko 6,5 egiten du.

- Tasa eta prezio publikoak: ABC metodologian (Activity Based Costing edo jardueren kostuak) oinarritutako kostuen sistemaren aplikaziotik lortu diren emaitzak eguneratu ondoren zehazten dira. 2000. urtean egin zen hura, eta zuzeneko kostuak urtero KPIaren arabera eguneratu dira eta zeharkako kostuak ere egotzi zaizkio urte hartan kalkulaturako portzentajearen.

Bestalde, 2003an, Udala Espainiako Udal eta Probintzien Federazioak sustatutako proiektuan sartu zen, hain zuzen ere prozesuaren araberrako kostuen kalkulurako sistema ezartzeko. Aipaturako proiektuan parte hartu arren, Udalak ez du sistema hori aplikatzen zerbitzuen kostua kalkulatzeko.

2013ko tasa eta prezio publikoak ezartzeari begira kostuak kalkulatzeari buruzko oroitidazki ekonomiko finantzarioan, agerian jartzen da onetsitako tasa eta prezio publikoekin kostuen zati txiki bat baizik ez dela ordaintzen.

Gure gomendioak:

- *Tributu ikerketarako eta ikuskapenerako unitatearen eta tributuen kudeaketarako unitateen arteko koordinazioa hobetzea, eta lehentasunezko jarduketatzat jotako tributu guztien ikuskapenak areagotzea.*

- *Tasa eta prezio publikoak zerbitzuaren kostu errealean edo aurreikusitako kostuen arabera ezartzea.*

- *Obren kostu erreala baloratzeko, beste Udal alor batzuetako teknikariekin lankidetzan jarduteko tresnak ezartzea, eta subjektu pasiboak aurkeztutako EIOZaren behin-behineko likidazio guztien behin betiko likidazioak egitea.*

- *Terrazak kontrolatzeko plan bat egitea, ordenantza arautzaileak aurreikusi bezala.*

VII.7. ONDARE BIDEZKO DIRU-SARRERAK

Udalaren 2013ko ondare bidezko diru-sarrerak 1,58 milioioak izan ziren. Zenbateko hori Udalaren diru-sarrera guztien ehuneko bat da.

- Aprobetxamendu berezien bidezko diru-sarreraren kontusailak 1.254.968 euroko eskubide aitortu negatiboak dauzka, VINSZA sozietate publikoak (gaur egun NASUVINSA) 2008ko ekitaldian etxebizitza babestuak eraikitzeaz azalera-eskubidearen kontzeptuan ordaindutako diru-sarreraren itzulketengatik. Zenbateko horretatik, gaur egun 877.600 euro daude ordaintzeko.

Gure ustez, itzulketa horrek kuantitatiboki aldatu egin du aipatutako diru-sarreraren kontusailaren likidazioa, eta gastuen aurrekontuaren bidez kontabilizatu behar zen, behar besteko finantzaketaren zuzkidura zuen kontusail batean.

- Baluarteko aparkalekuaren kontzesioari dagokion kanona ez da hiru hilez behin kobratzen, araudi arautzailean ezarritakoaren aurka; izan ere, ia bi urtera bitarteko atzerapenarekin kobratzen da. Hartara, 2014ko bigarren hiruhilekoan 39.583 euro kobratu ziren 2012ko ekitaldiari dagokion kanonetik eta 105.344 euro, berriaz, 2013ko kanonetik.

- Etekinetako dibidenduen eta partaidetzen bidezko diru-sarrerak 160.723 eurokoak izan ziren. Horietatik, 147.007 euro Mercairuña udal sozietatearen dibidenduari dagozkie; izan ere, sozietate horrek 2013an 2012ko ekitaldiko emaitzaren eta borondatezko erreserben kargurako dibidendua banatu zuen.

- Kontu finantzarioen saldoa 28.767.327 eurokoa da 2013ko abenduaren 31n. Kontu horiek 158.910 euroko interesak sortu zituzten, eta haien ehuneko 70 2013an eratutako epe laburreko bi ezarpeni dagozkie; guztira, zortzi milioi euro egiten dute, ehuneko 1,5 eta hiru bitarteko interes tasarekin.

2013ko abenduaren 31n, kutxa finkoko aurrerakinen zortzi kontuetatik bi ez daude baliogabetuta, eta 3.000 euroko saldoa dute guztira. Konprobatu dugu zenbait disfunzio badaudela kutxa finkoko aurrerakinen jarraipenerako kontabilitate-moduluaren eta eta kontabilitate orokorrarekin daukan loturaren artean.

Gure gomendioak:

- *Gastuen aurrekontuari aplikatzea aurtengo aurrekontuko diru-sarreraren kontusailei dagozkien likidazioak alda ditzaketan aurrekontu itxietako diru-sarreraren itzulketak.*

- *Exijitzea Baluarteko aparkalekuaren kontzesioaren kanona araudian ezarritako epean kobratu dadila.*

- *Kutxa finkoko aurrerakinen kontabilitate-kudeaketa hobetzea.*

VII.8. UDALAREN INBERTSIO ERREALEN BESTERENTZEA

Udalaren 2013ko diru-sarrerak, inbertsioen besterentzetik heldu direnak, 3,27 milioi eurokoak izan ziren. Ekitaldian aitortutako diru-sarreraren guztizkoaren ehuneko bi egiten dute. Ia guztiak kontusailen salmentari dagozkio.

2012-2015 finantza-programan, Udalak 2013an 11,8 milioiko diru-sarrerak aurreikusi zituen inbertsioen besterentzearen ondorioz.

Hurrengo taulan jasotako kontusailen besterentzea aztertu dugu.

Lur-zatia	Zertarakoa	Prozedura	Zenbat lizitazio	Lizitazio-prezioa, BEZik gabe	Esleipen-prezioa, BEZik gabe	Urbanizazio kargak
L4 Lezkairu	Etxebizitza babestua	Lehiaketa publiko irekia	7	1.302.844	1.610.000	246.345
K2 Iturrama Berria	Etxebizitza babestua	Lehiaketa publiko irekia	13	747.661	905.979	0
A13-C Arrosadia	Etxebizitza babestua	Lehiaketa publiko irekia	Eman gabe	1.529.640		
M6	Gasolina-zerbitzuguneak	Esleipen zuzena	1	826.611	826.611	

Oro har, lursailen salmentak hirigintza-legediaren eta ondasunen gainean aplikatzekoa den araudiaren arabera izapidetu dira.

- Etxebizitza babesturako lur-zatien salmentaren kasuan, esleipen prezioak ez du gainditu proiektatutako azalera erabilgarriaren arabera eta 2013an indarrean den moduluaaren arabera legez ezarrita dagoen salmentarako gehieneko prezioa, hau da, lurzoruaren eta urbanizazioaren gehieneko jasanarazpenak ez zuen gainditu salmentarako gehieneko prezioaren ehuneko 17,5a.

Lur-zatien salmentaren bidezko diru-sarrerak etxebizitzarekin, hiri-zaharbertzearekin eta hirigintza-kudeaketarekin lotutako inbertsioen finantzaketari atxikitako baliabideengatik diruzaintza-gerakinean sartzen dira.

- Udalak zuzenean saldu zuen merkataritza-erabilerakoa izan eta 212.264 euroko katastro-balioa zuen lur-zati bat, 826.611 euroko tasazioa zuena, gasolindegiko bat jartzeko. Horren truke, honakoak jaso zituen: 361.005 euroan tasatutako beste lur-zati bat, erosleak lur-zatia urbanizatzeko karga, 242.642 eurokoa, eta 222.964 euroko kopuru bat eskudirutan; zenbateko horretatik, 75.811 euro jasotako lur-zatien jasanarazitako BEZari zegozkion. Lur-zatiaren salmentaren aparteko emaitza 614.347 eurokoa izan zen.

Udalak partikularri saldutako lur-zatira aldatu behar zen zerbitzugunea Arrosadia-Lezkairuko ARS-3 banaketa-arloan zegoen, eta desagertu egin zen, zeren eta jarduera bateraezina baita, etorkizuneko etxebizitzaren ingurune horretan dauzkan eraginengatik.

Operazio horri lotuta, 2003ko otsailean, Iruñeko Udalak eta gasolindegiko jabeak asmo-protokolo bat izenpetu zuten. Udalak adierazi zuen prest zegoela gasolindegia leku-aldatzea errazteko; jabeak, bere aldetik, konpromisoa hartu zuen kasuko lursailean gasolindegiko bat jartzeko, eta adierazi zuen asmoa zuela Udalarik lagatzeko Lezkairuko banaketa arloko kudeaketa-agirian bere alde eratortzen ziren kontzeptu guztien-gatik (eskubide guztiak, eraikinak eta jarduera lekuz aldatzea) kalte-ordainak.

2011ko martxoaren 28an, Iruñeko Udalaren eta gasolindegiko jabearen arteko hirigintza-hitzarmen bat izenpetu zen, honako terminoen arabera:

- Gasolindegia jabeak lau finka jarriko ditu Arrosadia-Lezkairuko ARS-3 banaketa-arloaren birzaitze-proiekturako; 717.520 euroan baloratuta daude.

- 1.855.458 euro aitortzen zaizkio kalte-ordain gisa, zerbitzugunea lekuz aldatzeagatik eta higiezinengatik.

- Udala M6 lur-zatiaren jabea da. Hurbil dagoen sektore batean dago eta 1.975.680 euroan baloratuta dago.

- Zerbitzugunearen jarduerak herritarrentzat interes orokorreko izaera duela kontuan hartuta, egokitzen duten gasolindegiko jabeak Udalaren jabetzakoa den M6 lur-zatia eros dezala, aipatutako diru-kopuruaren truke. Udalak konpromisoa hartu zuen M6 lur-zatiaren zuzeneko besterentzerako espedienteak hasteko, kopuru horretan, salbu eta tasazioa egin zenetik hamabi hilabete baino gehiago iragaten baziren. Izan ere, hala-korik gertatzen ez bada, beste balorazio bat egin beharko zen. Ordainketa Arrosadia-Lezkairuko ARS-3 banaketa-erloto aipatutako lur-zatien lagapenaren bidez egiten zen -717.520 euro egiten dute-, gehi urbanizaziorako 75.082 euro; horrez gainera, 632.539 euroko ordainduko ziren eskudiruan, gehi M6 lur-zatiaren urbanizazio kargetatik ordaintzeko zegoen zatia.

2013ko ekainean, lur-zatien beste balorazio bat egin zen, eta gasolindegiko jabeak jarritako lursailak 561.900 euroan (361.005 euro, urbanizatu gabe) baloratu baitziren, eta M6 lur-zatia, berriz, 826.611 euroan.

2013ko uztailaren 5ean, Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki zuen M6 lur-zatia zuzenean besterentzea eta besterentze horretarako baldintza-orria onestea. Baldintza-orri horretan, tasatzaileak 2013ko ekainean egindako txosteneko balorazioak jasotzen dira; hau da, 826.611 euro besterentzen den lur-zatirako eta 361.005 euro erosten den lur-zatirako.

VII.9. HARTUTAKO FIDANTZAK ETA GORDAILUAK

Jasotako fidantzen eta gordailuen kontuek honako saldoak dauzkaten 2013ko abenduaren 31n.

	Saldoa
Hartutako fidantzak	2.976.407
Jasotako Gordailuak	1.021.297

Saldo horietatik, gutxienez ere jasotako fidantzen 825.689 euro eta jasotako gordailuen 451.142 euro 1993koa baino lehenagoko ekitaldietatik datoz, eta ezezaguna da zein hirugarrenetik datozen, Udalak 2007ko ekitaldian egindako analisian agertzerak emandakoaren arabera.

Gomendatzen dugu jasotako fidantzen eta gordailuen kontuen saldoak erregularizatzea.

VII.10. APLIKATZEKO DAUDEN KONTUSAILAK

"Aplikatzeko dauden kontusailak" kontuko saldo hartzekoduna 759.475 eurokoa da 2013ko abenduaren 31n. Honako kontzeptuei dagokie, nagusiki:

- 631.276 euro Mendebaldearen urbanizazio kuotei dagozkie: 1996ko ekitalditik Hirigintzako Gerentzia erakunde autonomoari ordaintzeko daude.
- 108.991 euro nagusiki 2012ko eta 2013ko ekitaldietatik datozen eta aplikatzeko dauden aurrekontu-diru-sarrerari dagozkie.

Gomendatzen dugu aplikatzeko dauden kontuen saldoak aztertu eta erregularizatzea.

Txosten hau, indarrean dagoen araudiak ezarritako izapideak bete ondoren, Asunción Olaechea Estanga auditore andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2014ko azaroaren 26an.

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas.